

Durangaldeko herriak elkarrekin ariko dira euskararen alde lanean

Amankomunazgoko Euskara Zerbitzuak koordinatuko du euskara normalizatzeko egin beharreko lana

Euskaraz bizi dira lurreta nahiz Atxondo, baina euskara ez da berdin bizi batean eta bestean. Izan ere, orain arte Durangaldeko herrietako bakoitzak bere aldetik egin ditu urratsak euskararen bidean; batzuek azkarrago, besteek mantsoago.

Orain, ordea, pausoak elkarrekin emango dituzte. Izan ere, Elhuyar Aholkularitzaren laguntzarekin, hemendik aurrera Durangaldeko Merinaldearen Amankomunazgoko Euskara Zerbitzuak koordinatuko eta bate-

ratuko du eskualdeko herrien jarduna, bakoitzak dituen beharretatik abiatuta.

Oraingoz 2009ko plangintza osatu dute, eta, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak zehaztutako helburuekin bat egin ez, euskararen aldeko motibazioa eta honen ezagutza handitzea helburu duten egitasmoei eman diete lehentasuna.



Amankomunazgoaren egoitza.

Batek Berbalaguna egitasmoa jarri dute martxan eta, bestetik, etorkinei ongi-etorria emateko plana egin dute; horiei euskara zer den azalduko diete. Gainera, euskara ikas-terko baliabideen gida osatu dute.

Aurrera begira, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana abian jartzea beharrezkotzat jo dute.

Doneztebeko irakasle-taldea elkarren urratsean ariko da heziketaren bidean

San Miguel Ikastetxeko irakasleek elkarlana eta koordinazioa hobetzeko prozesua egin dute

Aurrerantzean norabide berean egingo du arraun Doneztebeko San Miguel ikastetxeko irakasle-taldea. Izan ere, urtarrila eta martxoa bitartean taldetze-prozesua egin dute Elhuyar Aholkularitzaren laguntzarekin.

Horrela, launa orduko 5 saiotan beraien arteko elkarlana eta koordinazioa hobetzeko bideak aztertzen jardun zuten Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 34 irakaslek. Horrek guztiak ikastetxearen hezkuntza-proiektua sendotzea izan du helburu, eta, bide horretan, eguneroko jarduna sistematizatu zuten.

Horretarako, beraien eguneroko jardunean sortutako beharrak, interesak eta hutsuneak identifikatu zituzten, Elhuyar Aholkularitzak erabili ohi dituen talde-dina-



Irakasleak taldea talde dinamika batean.

mikak baliatuta. Hortik abiatuta, behar horiei erantzuteko plangintza osatu zuten guztien artean; beraien nahi bezala, "betiere giro onean". Horrela, emaitzak bat egin du helburuarekin: irakasle-taldea sendotu egin da, kohesionatu.

Koordinatzaile nagusi berria dugu

Urtea hastearekin bat, aldaketak iritsi ziren Elhuyar Aholkularitzara. Ordurarte koordinatzaile nagusi izandako Agurtzane Loidik kargua utzi zuen eta teknikari lanetan ari da gaur egun. Arantza Larrinagak hartu du orain lekukoa, lauzpabost urterako. Larrinaga ikasketaz irakaslea da, eta, besteak beste, AEKn egin du lan; gainera, 10 urte egin zituen El Salvadorren helduekin hezkuntza-proiektuak lantzen. Azken 11 urteak Elhuyarren egin ditu.



Arantza Larrinaga eta Agurtzane Loidi.

Elhuyarrek berritu egin du webgunea

Teknologia berriei komunikatzeko aukera berriak ekarri dituzte eta Elhuyar Aholkularitzak ez du atzean gelditu nahi. Horregatik, webgunea berritu du aurten, sarean ere baliagarri izateko.

Gauzak horrela, bezeroek nahiz bezerogaiek txoko propioa dute orain, *Bezeroen txokoa*. Gune horretan Elhuyar Fundazioak nahiz Elekak sorturiko hainbat zerbitzu eskura ditzakete; hala nola Elhuyar hitzegia, Openrad kode askeko itzultzaile automatikoa edota Elebila, sareko euskarazko bilatzailea.

Horretaz gain, Elhuyar Aholkularitzaren bezeroak gune berezi batera sar daitezke. Bertan, Aholkularitzak hizkuntzaren erabilera egokia bermatzeko sorturiko materiala aurkituko dute.

Bankoak aurrera egin euskararen

Finantza-erakundeak pausoak eman ditu 2009an euskararen erabilera areagotzeko, barrura nahiz kanpora begira

Ttipi-ttapa, urrats txikiak eginez baina atse-denik hartu gabe, euskarak aurrera egin du azken 20 urteotan. Gero eta gehiago dira ezagutzen dutenak; erabiltzen dutenak ere bai, maila apalagoan bada ere. Gazteei erreparatuz gero, itxura guztien arabera etorkizunean ere indartzeko bidea egingo du euskarak horien eskutik.

Horretaz oharturik, Kontsumitzaileen Legeak ere zerbitzua euskaraz bermatzera behartzen ditu hainbat enpresa eta erakunde. Gauzak horrela, gero eta gehiago dira euskararen bidean aurrera egitea erabaki dutenak. Legeak behartuta, bai, baina baita bezero-sektore bat bereganatzeko aukera paregabea ikusi dutelako ere.

2009. urtean, askotarikoak izan dira horrelako prozesuren bat abiarazi duten eragileak, baina guztiek helburu bera dute: eguneroko jardunean euskararen egoera normalizatzea. Besteak beste, Elhuyar Aholkularitzak Bankoa finantza-erakundeari lagundu dio bide horretan.

Lehen urratsa, diagnostikoa

Bankoa 2008ko udaberrian hasi zen euskarari ematen zion lekuaren inguruan hausnartzen. 300 langileko finantza-erakunde honek bereziki Hego Euskal Herrian egiten du lan. 44 bulego ditu guztira eta horietatik erdiak Gipuzkoan daude, euskarak indar gehien duen herrialdean, hain zuzen. Batik bat zerbitzuetatik bizi den erakundea izanik, euskaldunekin harreman estua du, beraz. Baina horiei behar bezalako arreta eskaintzen al die?

Elhuyar Aholkularitzak euskarak Bankoan bizi duen egoeraren diagnostikoa egin zuen eta, horren arabera, langileen erdiak baino gutxiagok zekien euskaraz. Gainera, ez zegoen finkatuta bezeroekin erabili beharreko hizkuntzaren inguruko irizpiderik; langileen esku zegoen zein hizkuntza erabili hautatzea. Bestetik, barne-komunikazioan gaztelania zen nagusi.



Bankoako hainbat langile Euskara Batzordean lanean.

Beste muturrean, erakundearen hizkuntza-paisaia zen indargune nagusia, aspalditik ele bietan egin izan baita. Dena dela, langileei eurei egindako galdekartetan

Euskara, harremanak



Legeak eta bezeroen inguruko kezkek alde batera utzita, Elhuyar Aholkularitzak 2009an Deban gazteekin garatu duen planak bestelako izaera du. Kasu honetan, gazteen artean euskararekiko motibazioa eta horren erabilera areagotzea izan da egi-tasmoaren helburua, Debako Udalak hala eskatuta. Horretarako, gazteekin eurekin egin dute lan bi teknikarik 8 hilabetean.

Gazteek herrira ere zabaldu dute beraien hausnarketa. Horrela, bloga sortu dute, bideoklip-a ere bai, eta Txipriztin festa delakoan lehertu zen euskararen inguruan

n du en bidean



ere, euskararen alorrean hobetzeko beharra nabarmendu zuten.

Egoera hori iraultzen lagundu nahi die Elhuyar Aholkularitzak. Kanpo- nahiz

harilkatzeko makina



berotzen joan den giroa. Herritar ugari bilduzen festara, esloganak ondo dioen bezala, euskarak *batzen gaituelako*.

Eraitza positiboa izan da eta, prozesuan parte hartu duen gazte batek *Berriketan* herri-aldizkarian esan bezala, "zortzi hilabetez gazteon arteko eta geure hizkuntzaren arteko lokarria etengabe estutzen ibili gara; euskaraz berba egiteko trabak, arrazoiak, egoerak eztabaidatzen; gure hiztegia zabaltzen, puzten, aberasten; euskararekiko sentimenduak sakontzen, argitzen ibili gara".

bame-harremanetan euskararen erabilera sustatzea izango da helburua, eta, horretarako, langileak eta enpresa bera kontzientziazatzea izango da lehen egitekoa, hizkuntza-irizpideak ezartzearekin batera.

Gauzak horrela, 2009an Euskara-plana jarri dute abian. 2008tik martxan zegoen langileek osatutako Euskara Batzordea eta urtariletik Euskara Plana garatzeaz arduratzen da.

Bankoako langileen herena euskara ikasten edo maila hobetzen ari da

Horren harira, erakundearen irudia euskalduntzeaz arduratu da lantalde bat urteko lehen sei hilekoan. Horiek arduratu dira erakundearen hizkuntza-irizpideak zehazteaz. Udazkenean kanpo-harremanetan jarri dute arreta berezia eta lantalde bat sortu dute hori lantzeko. Horrekin batera, bulego bakoitzean hizkuntza-arduradun bat izendatu dute; horrela, bulegoetan Euskara Plana aintzat hartzen dela bermatuko dute.

Gainera, on-line sistema baten bidez euskaraz ikasteko aukera eman die erakundeak langileei, doan, eta jada 60 lagun inguruk eman du izena; gainera, beste 11 langile lantegian bertan ematen diren eskoletan ari dira euskara ikasten. Beraz, langileen herena, gutxi gorabehera, euskara ikasten edo maila hobetzen saiatzen ari da.

Zuzendaritza, gogotsu lanean

Garrantzitsua izan da Zuzendaritzatik Planari emandako bultzada. Ana Urkiza Bankoako Giza Baliabideen arduraduna da eta, era berean, Euskara Batzordeko koordinatzailea. Berak azaldu bezala, *"Euskararekin ere Aurrera doa Bankoa!* Horixe da Bankoa Crédit Agricole-n abian jarritako Euskara Planaren irudia eta mezua. Gogotsu hasi ginen eta gogotsu darraigu. Euskara Batzordeak indarrez bultzatzen du Plana eta Elhuyarren aholkularitza onari esker abiada bizian daramagu aurrera. Momentu honetan, urteko lehen sei hilekoan egindako lanari dagokion kanpainarekin gabiltza eta lankideen harrera ona dela esan genezake. Modu naturalean sartuz eta onartuz doana".

Bilbo Handirako lanean Leioatik

Euskarak inoiz baino taupada zuzenago gorri gehiago du. Izan ere, euskararen ezagutzari eta erabilera buruzko datuak jasotzen hasi zirenetik, inoiz baino euskaldun gehiago dago Bilbo Handian. Hogeita urtean % 7,6 hazi da euskaldun kopurua eta egun biztanleriaren erdia (% 43,1) euskalduna edo euskalduna da. Gazteei errepantzen badiegu, % 78,8 da euskalduna edo ia euskalduna. Etorkizunak, beraz, euskararen doinua du. Baina erakunde nahiz enpresak prest al daude seietore gero eta handiago horri zertutzuzak nahiz produktuak euskaraz eskaintzeko?




Leioako bulegoa, Ikea eraikinean.

Egoera horri behar bezala erantzuten lagundu nahi die Elhuyar Aholkularitzak, eta, horretarako, bulego berria ireki berri da Bilbo Handian, Leioaren bihotzean. Bulego berriaren lehen egitekoa Metro Bilbao enpresarekin Euskara Plana izango da.

Hartzailea euskalduna

Baina Metro Bilbaok bezalaxe eskualdeko udalek, udal-elkarteei bestelako elkarteek nahiz enpresek gero eta bezero euskaldun gehiago dute, eta joera horretan indartzera egingo duela dirudi. Bezero horiek zerbitzuak nahiz produktuak euskaraz jasotzeko eskubidea dute legez, eta eragileek erantzun egin behar diote egoera horri. Ez hori bakarrak eragileentzat eurentzat ere probetxugarria izan daiteke euskalduntzea, hartzaile euskaldunengandik hurbiltzeko aukera emango baita.



ELHUYAR aholkularitza

2009 4. zenbakia

www.elhuyaraholkularitza.net
aholkularitza@elhuyar.com
tel.: 943 372052 (Usurbil)
94 4668816 (Durango)
94 4647668 (Leioa)

breves

Cambio de coordinadora general

Arantza Larrinaga ha tomado el relevo de Agurtzane Loidi como coordinadora general de Elhuyar Aholkularitza. Larrinaga lleva 11 años trabajando como técnico en la empresa.

Elhuyar ha renovado su página web

Durante este año Elhuyar Aholkularitza ha renovado su página web. Ofrece diversos servicios a sus clientes en el apartado *zona clientes*.

Nueva oficina de Elhuyar en Leioa

Elhuyar Aholkularitza ha abierto una nueva oficina en el Gran Bilbao, concretamente en Leioa. El primer trabajo de la nueva oficina será diseñar el Plan de Euskera de la empresa Metro Bilbao.

El Duranguesado, unido en pro del euskara

La Comisión de Euskera de la Mancomunidad de la Merindad del Duranguesado coordinará el trabajo que los pueblos de la comarca realicen en cuestiones lingüísticas, con la ayuda de Elhuyar Aholkularitza.

En el 2009 su prioridad serán ciertos proyectos que tienen como fin aumentar la motivación respecto al euskera y su uso. Para ello, han puesto en marcha la iniciativa Berbalagun; además, han definido un plan de acogida para inmigrantes, mediante el cual se les explique qué es el euskera; y, finalmente, han publicado una guía de recursos para ayudar a quienes quieran aprender euskera.

De cara al futuro, consideran necesario realizar un Plan de Normalización del Uso del Euskera.

Cohesionando al profesorado

A partir de ahora, el profesorado del centro educativo San Miguel de Doneztebe avanzarán en una única dirección. Ello se debe a que han realizado un proceso de cohesión de la mano de Elhuyar Aholkularitza.

En el proceso han participado 34 profesores de Educación Infantil y Primaria. Éstos han analizado cómo mejorar la coordinación y cooperación entre ellos. El fin del proceso era fortalecer el proyecto educativo del centro, sistematizando para ello su labor cotidiana.

Mediante las técnicas participativas y dinámicas de grupo propuestas por Elhuyar Aholkularitza, han identificado las necesidades, intereses y carencias de sus relaciones. Con el fin de dar respuesta a todas esas cuestiones, posteriormente han realizado un plan de actuación.

central

Bankoa, avanzando hacia el euskera

Durante el 2009 la entidad financiera Bankoa ha puesto en marcha un Plan de Euskera, con el fin de aumentar su uso

Paso a paso, sin grandes saltos pero con determinación, el conocimiento y uso del euskera ha ido en aumento durante los últimos años. Debido a ello, la legislación obliga a empresas e instituciones a ofrecer sus servicios también en euskera. Además, éstas se han dado cuenta de que el euskera puede ser un instrumento más que efectivo para fidelizar clientes y afianzar relaciones.

Así, cada vez son más las empresas e instituciones que han decidido unirse al euskera. Durante el 2009, Elhuyar Aholkularitza ha ayudado a varias entidades, entre ellas a la entidad financiera Bankoa.

Experiencia satisfactoria

Bankoa trabaja principalmente en Hego Euskal Herria; la mitad de sus 44 oficinas están en Gipuzkoa, el territorio más euskal-

dun. Pero, aun así, sólo el %44 de sus trabajadores sabía euskera.

Con la ayuda de Elhuyar Aholkularitza, durante el 2009 han puesto en marcha un Plan de Euskera. Así, durante el primer semestre principalmente han trabajado la imagen de la empresa. Por otro lado, la empresa ofrece a los trabajadores la oportunidad de tomar clases de euskera on-line gratuitamente. Así, casi un tercio de los trabajadores ha empezado a aprender euskera o a mejorar su nivel.

Entretejiendo relaciones

A petición del Ayuntamiento de Deba, durante 8 meses dos técnicos de Elhuyar Aholkularitza han trabajado con los jóvenes de Deba con el fin de influir en la motivación y el uso del euskera. Los jóvenes han reflexionado sobre el tema, sobre sus dificultades y problemas para comunicarse en euskera. Además, han compartido sus conclusiones con el resto de los debarras mediante blogs, carteles y actos. Como colofón final, organizaron la fiesta Txipiztin.